

Txoriak, eskuan hobe hegan baino


ARTEAGA, GERNIKALDEA. URDAIBAI PARAJE BABESTUAREN BIHOTZA. BERTAN HIRU UNAMUNO: ERMUARRA BATA, EDORTA, ETA GERNIKARRAK BESTE BIAK JOSEMARI ETA ALBERTO ANAIK. HIRURAK PROIEKTU ETA ILUSIO BERAREN PARTE: FADURA HORIETAN ATSEDEN HARTZEN DUTEN TXORIEN KONTROLEAN.

Arrazoia zuen Edortak esan zigunean telefonoz ezin zela esplikat, bertara joan behar ginela. Eguzkitsu argitu zen eguna; lo gutxi egindako domeka goiz horretarako errekonpentsa hobeagorik ezin. Hartu autoa eta han joan ginen biok, jaiegun jantzitako kalekume parek, txoriok ikustera. Goiz ibili baginen gu, goizago gure txorizaleak, esaera zaharra jarraituz: "txoriekin esnatu eta oiloe-kin oheratu" (sasoiz oheratzearena esaeraren errima ez apurtzeko laga beharko). Bidera irten ziguten eta derri gorrezko aurkezpenak egin ostean aire, txoriak zain genituela eta joan beharra genuela! Ehunka txori imajinatzen genituen, mota bateko eta besteko, karioletan edo modukoetan sartuta. Euren esanetako "luxuzko" eraikinaren ateak zabaltu zizkigutenean, hura ezustekoa! Arrain kontserbera izandako tailer zaharkitu bat zen, lau

horma eta teilatu bat besterik ez. Aulki batzuen gainean, panel koloretsu batzuk eta kito, hantxe amaitzen zen dena! Eta txoriak? Teilaturainoko amaiera gabeko eskailera luzenka baten muturrean, eraikin hura luxuzko egiten zuen arrazoia: begiratoki bat zen, Biosferaren Ereku Erreserbatua den Urdaibaiko lur umeletara zabalduko leio indiskretu bat. Ikusgarria! "Txio-txio!" Ene, zer mugitzen zen zakutxo haietan? Ah, zain genituen txoriak! Hartu jarleku bana eta padurara begira paratu ginen, hegaztiak eraztuntzeko eta matrikulatzeko prozesu zientifiko hartako parte eta ikusle espontaneoak bihurtuz.

Ikerlana

Galderaz josi genituen eta, txoriok eskuetan, gure ezjakintasuna apaintzen ahalegindu ziren. Zer zen bazorioneko eraztuntzea, anillatzea? Gauza sinplearen itxurarekin balio itzeleko



ikerketara lana: txori baten apatxari aluminiozko anila ñimiño bat lotzea. Doan lekura doala, hegaztiak berekin eramango du herrialdearen izena eta egokitu zaion zenbakia. Eskuetan dugunean txoria guretzat liburu bat da eta eskaintzen dizkigun datuen argazkia atera behar diogu: espeziea, adina, luma, sexua, hegoren luzera, pisua, koipea

Datuen araberrako irakurketa egiten da, ondorioak ateratzeko eta jakiteko txoria bere migratze abiadan zein lekutan dagoen. Esate baterako, koipea izateak hego-

aldera bidean dagoela esan nahi du, bidaia egiteko behar dituen lipidoak bere gorputzean metatuta dituela, gasolina depositu baten antzera. Lumak erretiratu eta papar inguruan zainak eta hezurtxoak bistaratzen bazaizkio, bueltako bidean doan seinale. Guztiaren jakitun, txoria askatzea besterik ez zaigu geratzen.

Europarekin harremanetan

Txorien informazio guztia Interneten bidez Holandara bidaltzen da, "Hegazti Migratzaileen Koordinatze

Zentrora", han zentralizatu eta mundu osoko beste eraztuntze guneetan eskura dezaten. Paraje hauetatik argitzen diren txoriek, Europako Ipar edo Erdialdean kumatzen dute. Hotza nagusitu orduko, Afrika aldeko lur beroetara egiten dute martxa, negu-pasa. Urdaibaiko padura umeletako lokatz eta basatzetan, txoriak euren bidaiaren atsedeneleku eta jateko ugari topatzen dute, 'restop' baten antzera...

Sareak begiratzera

Hauek eta beste gauza asko kontatu zizkiguten, baina haizea zakartzen hasia zen eta gure ikerlariak barruko zeregina lehenbailehen amaitzea nahi zuten, kanpoko sareak itxi beharra zegoela eta. Sareak? Arrantzara irten behar ote genuen? Harritzen jarraitu behar ote ginen? Itxuraz bai! Indiana Jonesek zapata galdu zueneko moduko lur bigun zirineta sartu ginen, e-

gurrekin egindako bidexka labainkor baten aurrera, oinetakoa morokil hartan nork lehenengo sartuko. Txinatarrak ziren sareak, xamur-xamurrak, hegan zihoan txoriak ikusi ezinezkoak eta kateatuta geratzen, minik egiten ez ziotenak. Ibilbidearen amaieran, txoritxo bat saretik noiz askatuko zain zegoen; haizearen eraginez edo, sare guztia gorputzean nahasia zuen. Handik askatzea minik eman barik, zaila; artaziak hartu eta sarea zulatuta, beste erremedioren ez zegoen. Txoria da beste denen aurretik. Esku artean ikusi ere ez zen egiten; joan-etorrian milaka kilometro egin behar zituenik, sinestezina!

Sorpresaren zain

Sareak ixteko kargua eman ziguten; ahalegindu eta itxurak egin genituen, baina hurrengo domekan ze lorrin topatuko zuten, auskalo! Zortzi egun barru, eguraldia lagun, sareok berriro balio-

ko dute txoriak harrapatuz hirukotea zeregin horretan kateatzeko. Sarean zer sorpresa topatuko duten edo zein txori mota edukiko duten eskuartearen, ezjakintasun eta irrika horrek sortarazten die ilusio eta entusiasmorik gehien. Ekinaldi bakoitzeko 40-50 hegazti sailkatzen dituzte, baina gutxitan gertatzen dira behin suertatu zitzaizen ezustekoren parekorik: Siberian kumatu ondoren Indotxinarantz hartu behar zuen Txio marrabiko bat Urdaibain azaldu zen. Himalaya, Gobi basamortua eta Tibet mendikatea saihestuz negu-pasa Indiako Ozeano inguruan egin behar zuenak, Pirinioak alboratuta, Kantauri itsasoko bazter honetan pausatu zituen bere hegoak. Kontatzeko daukate eta ez da gutxiagorako, ekaitz batek desbideratutako-edo migratze bide berriak zabaltzeko eboluzionatu duen txori arraro baten aurrean egonda!

Kexatu ere egin ziren. Gaiaren gainean dugun eza-gupen falta eta kultura ezaren gainean batez ere. Era-kunde eta komunikabideen inplikazioa eza azpimarratu zuten Europako beste leku batzuekin alderatuz.

Aldi berean, Ermua eta Mallabia inguruko ehizatzaiei gogora ekarri eraztundutako txoriren bat aurkitzen badute, web horren bitartez txorizaleekin harremanetan jartzeko txori hori deskatalogatzeko aukera eman eta jakin, esaterako, Bielorrusiako urmael baten eraztundua izan dela. Agurtu aurretik euren web orria argitaratzeko eskatu ziguten, (www.urdaibai-hegaztiak.com) jendeak ikus dezan zertan ari diren.

Arteaga, Gernikaldea. Eugenia de Montijoren jau-regiko terrazan, eguzkiari begira. Bera han nola sentitzen zen ezin jakin, baina gu Enperatriz bera baino gustorago, duda barik!

Estibalitz González



komunitateak aseguruak

San Pelayo

aholkularitza fiskal eta juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MUGA

San Pelayo 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

IAKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ KONJELATUA

Ermuko Merkataria, 54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkataria
943 77 05 98

TXALAPARTA TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

943172665 ERMUA

BAGROS

Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona